

Xipri Arbelbide

APAIZA ETA IDAZLEA

Emigrazioa aterabide?

Berant nator Iñaki Mendigureni erantzunez: “Euskal Herria ez dela desagertuko jende faltaz”. Egia handia! Urte oroz 7.000 langile kanpotik sartzekotan: azken lau urteetan Nafarroan sortu lan postuen %42 etorkinek hartu dituzte. Ez bakarrik peontzan. Sukaldari, teknikari eta beste, badira dozena lan eskaintzen zerrendan, norbaiten zain.

Etorkinak miserian beren herrian? Arazo horrek ez ote luke emigrazioaz beste aterabiderik merezi? Lantegiak, langilerik ez den tokian eraikitzeke partez, langileak dauden herrian sortu behar dira. Beltza edo india emigratzera bortxatzea guri komeni zaigulako, zuzengabekeria zait. Baina nork pagatuko lizkiguke zahar-arrandak immigratuen kotizazioak gabe?

Aldiz, deslokalizazioak onartzen badira, miseria gutiago izanen da hor gaindi, immigratu gutiago hemen, bakoitzak bere herrian nahiago baitu bizi. Nolaz ez liteke hustuko Euskal Herria? Euskal Herriaren euskalduntzea? 7.000 etorkinekin urtean oraingo erdaldunen gainera, euskalduntze hori erraztuko da? Prostituzioa dela lanbiderik zaharrena? Ohointza ere bai. Horrek ez du ez bata ez bestea justifikatzen.

Ez uste izan Eliza ofiziala isilik dagoenik emigrazioaz, heren munduaren esplotazioaz, gaurko beste gaietaz. Urtatsez Benito XVI.ak eskatzen zuen *denen* ongizatea segurtatzen



DANI BLANCO

duen garapena. Behartsuak garapenetik baztertutak direla salatuz. Zer oihartzun izan du? Tatawingo apezpiku batek bi lerro idatzi bali-tu etorkinendako begiragailuen edo barreren kontra, horrek zituen irekiko berri-sailak!

Tatawinera gabe, gauden hemen. Hemengo zenbat apez entzuten da predikutik begiragailuen kondanetzen? Badu laster 50 urte apez naizela. Nihauri ez zait behin ere gertatu; nire lagunetan ez dut hori egiten duen bihi bat eza gutzen. Elizak ez duela bere moralari inposatze-ko pretentsiorik izan behar, errotik akort: sines-tea ez zaio norbaiti sakatzen, ahateak galkatzen diren bezala.

Bat ere errateko, Elizak kritikak merezi dituela. Beste edozein erakundek bezala. *Zoriona* nire liburua irakurri duena ohartu daiteke nire harritxoak ekarri diodala eraikuntz horri.

Lehen artikulura itzuliz, gustatuko litzaidake norbaitek esplikatzeko balit zer aterabide ikusten dion haurrik gabeko herri bati. Zer aterabide heren munduko miseriari, haien haurrak hona ekartzen baldin badi-tugu, lantegiak han sortzeko partez. Baina nola segurta hemen garapena eta zahar arrandak, immigratuak esplotatu gabe? Galdera horiek dira funtsezko galderak. Iñakik ez die erantzunik eman.

Azken galdera bat: nork irakurri du *osoan* Espainiako apezpikuek hauteskundeetaz plazaratu agiria? ■

« Nola segurta hemen garapena eta zahar arrandak, immigratuak esplotatu gabe? Galdera horiek dira funtsezko galderak.

Iñakik ez die erantzunik eman

Ñabardurak argia emateko

Irakurri berri dut ARGIAN egin zenidaten elkarrizketa eta gutun honekin, azalean eta barruko elkarrizketan jasotakoa argitu nahi nuke. Bi puntu adierazi nituen:

1) Patxi Baztarririk pentsatzen duena argi plazaratu duela, eta hor ikusten dela, zalantzarik gabe, Patxi bat datorrela, bere egiten dituela Jaurlaritzak azken bost urteetako adierazpene-tan esandakoak, egunkari bat ixtearen larritasunaz, Auzitegi Nazionalak Fiskalaren salaketarik gabe, Dignidad y Justicia bezalako taldeen argudioak bere egin izanak... Patxi ozen esan duela konbentzitututa dagoela auzipetuek ez dutela ETA-rekin zerikusirik; bestela, ETArekin kolaboratzaile direla sus-moa izanda, urtero diru-laguntza emango balie, bera ere kola-boratzaila izango litzatekeela.

Eta horregatik esan nuen, eta horrela jaso duzue argitaratuta-ko elkarrizketan, Baztarrিকা ez dela Jaurlaritzarengandik desmar-

katu, alderantziz Gobernuak esandakoa eta egindakoa berretsi eta ez hori bakarrik, berak esandakoa eta egindakoa dela, horren lekuko itxieraren bosgarren urteurrenaren ekitaldian bera izatea Jaurlaritzaren ordezkaria. Alde horretatik, beraz, Patxi bere egin ditu Jaurlaritzak azaldutakoak. Ez dago hor kontraesanik. Eta horregatik nioen Patxi ez dagoela bakarrik; ez dela kontua Patxi Baztarrিকা alde batetik, eta Jaurlaritzak osoa beste alde bate-tik dabilenik.

Eta horixe da ondo jasota aurkitu ez dudana.

2) Bide beretik, eta goian esandakoogatik, gehiegikeria irudi-tzen zitzaidala esatea Patxi Baztarrিকা, Auzitegi Nazionalaren tesietara lerratu dela. Idatzitako bi artikuluetan horretaz zer pen-tsatzten duen ere argi eta garbi adierazi duelako.

Miren Azkarate